Antsoaingo Udalaren informazio aldizkaria Boletín de información Municipal de Ansoáin

BIM

Antsoain Ansoáin

2020
Otsaila
Febrero
nº 19.zka

BERDINTASUN ZERBITZUA

ANTSOAINGO UDALEKO OSOKO BILKURAK AHO BATEZ ONETSI DU EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRA KOORDINATUTA JARDUTEKO TOKIKO PROTOKOLOA

Joan den azaroaren 27an, Antsoaingo Udaleko Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontra Koordinatuta Jarduteko Tokiko II. Protokoloa. EH-Bildu, PSN-PSOE, Unidas Izquierda-Ezkerra Podemos, Navarra Suma eta Geroa Bai taldeek aldeko botoa eman zuten.

Protokoloaren bidez, Antsoainen, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko arreta berezia eta berekia emateko benetako mugarria jarri da; eta, horrekin batera, bizirik ateratzen diren emakumeendako nahiz haien seme-alabendako arreta koordinatua eta homogeneoa. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan Antsoainen prozesu osoan esku hartzen duten giza baliabideen lanari esker egin da protokolo hau. Gizarte, polizia eta osasun arloko kideak dira nagusiki, eta haiek guztiek gogoeta egin eta berrikusi dute zer-nolako arreta ematen zaien emakumeei nahiz haien seme-alabei, zein premia dituzten eta nola ezarri behar den arreta-eredu koordinatua. Izan ere, baliabide publikoen arteko komunikaziorik eta elkarlanik eza da emakumeak berriz biktimizatzea eragin dezakeen lehen faktorea; eta, horren ondorioz, gerta liteke integrala eta eraginkorra ez izatea indarkeria hartatik bizirik ateratzen direnei ematen zaien arreta. Genero Indarkeriaren Kontrako Estatu Itunak 2019an gure udalerrira bideratutako diruen bidez finantzatu da proiektua.

UDALERRIAN ESKU HARTZEN DUTEN BALIABIDEEN EZAGUTZATIK ETA LANETIK ABIATU DEN PROTOKOLOA

Diziplina askotako jendeak osaturiko teknikari talde baten esperientziatik eta ezagutzatik abiatu da protokoloa; horixe izan da protokoloaren gakoetako bat. Taldean kide izan dira Antsoaingo Udaleko Berdintasun Zerbitzua (prozesua

SERVICIO DE IGUALDAD

EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO ANSOÁIN HA APROBADO POR UNANIMIDAD LA FIRMA DEL PROTOCOLO LOCAL PARA LA COORDINACIÓN DE LA ACTUACIÓN ANTE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

El pasado 27 de noviembre, el Pleno del Ayuntamiento de Ansoáin aprobó por unanimidad de todos los grupos políticos (EH-Bildu, PSN-PSOE, Unidas Izquierda-Ezkerra Podemos, Navarra Suma y Geroa Bai) el II Protocolo Local para la Coordinación de la Actuación ante la Violencia contra las Mujeres en Ansoáin.

La elaboración de este protocolo supone un hito en la atención que desde nuestro pueblo se va a prestar para prevenir la violencia contra las mujeres y atender de forma coordinada y homogénea a las supervivientes de esta violencia y a sus hijas e hijos. Ha sido posible gracias al trabajo de los recursos que intervienen de forma directa en violencia contra las mujeres y que tienen presencia en el municipio. Desde todos ellos, principalmente de ámbito social, policial y de salud, se ha reflexionado y revisado cómo se atiende a las mujeres y a sus hijas e hijos, qué necesidades se identifican y cómo establecer un modelo de atención coordinada, ya que la falta de comunicación y colaboración entre recursos públicos es el principal factor que puede contribuir a revictimizar a las mujeres y hacer que la atención a las víctimas supervivientes no sea integral, ni eficaz.

La financiación de este proyecto ha sido posible gracias a los fondos destinados a nuestro municipio para 2019 en el Pacto de Estado contra la Violencia de Género.

UN PROTOCOLO QUE PARTE DEL CONOCIMIENTO Y TRABAJO DE LOS RECURSOS CON PRESENCIA EN EL MUNICIPIO

Uno de los aspectos clave del protocolo ha sido su elaboración a partir de la experiencia y conocimiento de un grupo técnico multidisciplinar, con presencia del Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Ansoáin, que ha liderado y dinamizado este proceso, el Servicio de Policía Municipal

Argitaratzailea: Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Egilea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa. Edita:** Ayuntamiento de Ansoain. **Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. **Tirada:** 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2020ko apirila – Próximo BIM: abril 2020)

gidatu eta eragin duena); Antsoaingo Udaleko Udaltzaingo Zerbitzua; Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea; Iruñerriko eta Iparraldeko Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldea; eta Antsoaingo Osasun eta Osasun Mentaleko Zentroak. IBAIN Consultoría SL.k aholkaturik, baliabide horiek protokoloaren eduki guztiak adostu dituzte: hots, gizarte, polizia eta osasun arloetako lan-prozedurak; koordinaziorako udal mahai egonkorra, eta gorabeherak elaboratzeko sistema bat.

Prozesuan, emakumeen kontrako indarkeriatik bizirik atera diren Antsoaingo hainbat pertsonak parte hartu dute. Emakume horien bizipen eta lekukotasunak oso aproposak izan dira, haiek berek proposatutako hobekuntzak protokoloan jasota ote zeuden edo ez ikusteko. Azken fasean, protokoloak, halaber, Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren ekarpenak jaso ditu. Udaleko Berdintasun Batzordeak berak ere ekarpenak egiteko aukera izan du prozesu osoan.

PROTOKOLOAREN SINADURA

Datozen egunotan protokoloa sinatuko da. Ekitaldian, Nafarroa osoko polizia, osasun, gizarte eta berdintasun arloko agintariak bilduko dira.

del Ayuntamiento de Ansoáin, la Mancomunidad de Servicios Sociales de Ansoáin, Berriozar, Berrioplano, Iza y Juslapeña, el Equipo de Atención Integral a Víctimas de la Violencia de Género de Comarca de Pamplona y Zona Norte, y los Centros de Salud y Salud Mental de Ansoáin. Estos recursos, con el asesoramiento de IBAIN Consultoría SL, han consensuado los diferentes contenidos del protocolo: los procedimientos de trabajo en el ámbito social, policial y de salud; una mesa de coordinación municipal estable, y un sistema de elaboración de incidencias.

En el proceso también han participado supervivientes de la violencia contra las mujeres de Ansoáin, para contrastar a través de sus vivencias si las áreas de mejora que identificaban estaban recogidas en el protocolo. En una última fase, el protocolo también ha recibido aportaciones de Policía Foral y Guardia Civil. A su vez, la Comisión de Igualdad del propio Ayuntamiento, también ha podido hacer aportaciones a lo largo del proceso de trabajo.

LA FIRMA DEL PROTOCOLO

En los próximos días se procederá a la firma del protocolo, que reunirá a autoridades vinculadas a la atención policial, sanitaria, social y de igualdad de toda la Comunidad Foral.

LANKIDETZA BERRIA NUPEKIN, SOZIOLOGIAKO PRAKTIKAK EGITEKO

Antsoaingo Udalak bat egin du Nafarroako Unibertsitate Publikoak egindako eskaintzarekin, bertako ikasleek gure herrian soziologia praktikak egin ahal izateko. Azken ikasturteko bi ikaslek Udalak abian jarritako bi proiektutan eginen dituzte lanak; zehazki, Antsoaingo adinekoen gizarte errealitatearen diagnostiko soziologiko bat eginen dute batetik; eta, bestetik, ikuspegi soziologikoz, lankidetzan arituko dira Udal Kirol Instalazioen Plan berria abian jartzeko.

NUEVA COLABORACIÓN CON LA UPNA PARA PRÁCTICAS DE SOCIOLOGÍA

El Ayuntamiento de Ansoáin se ha adherido a la oferta realizada por la Universidad Pública de Navarra para que alumnado de la misma pueda realizar prácticas de sociología en nuestro entorno. De esta manera, dos de sus alumnos y alumnas del último curso realizarán trabajos en dos de los proyectos puestos en marcha por el consistorio. Concretamente, uno de los trabajos consistirá en la elaboración de un diagnóstico sociológico de la realidad social de las personas mayores de Ansoáin y, el otro, en la colaboración, desde una perspectiva sociológica también, para la puesta en marcha del Plan de las Instalaciones Deportivas Municipales.

SERVICIO SOCIAL

2020KO TAXI BONUAREN LAGUNTZAK ESKA DAITEZKE

Taxi bonuaren banakako gizarte-laguntza eska daiteke urtarriletik hasita. Laguntza horiek zenbait baldintza betetzen dituzten pertsonei bideratuta daude. Baldintzen artean dago % 33tik gorako desgaitasun-maila izatea eta garraio kolektiborako sarbidea larriki zailtzea desgaitasun horrek. Laguntza hauek helburu dute hiri-ingurunean mugikortasun osoa lortzea, dela pertsona horiek ibilgailu egokiturik ez dutelako, dela beste arrazoi batzuengatik une jakin batean erabili ezin dutelako.

Laguntzen eskaera zabalik dago 2020ko urrira arte, eta oinarriak udalaren webgunean ikus daitezke.

SERVICIO SOCIAL

YA SE PUEDEN SOLICITAR LAS AYUDAS BONOTAXI DE 2020

Desde enero se puede solicitar la ayuda social individual de "Bono-Taxi". Estas ayudas están orientadas a personas que tienen que cumplir una serie de requisitos, como por ejemplo tener un grado de discapacidad superior al 33%, y les dificulte gravemente el acceso al transporte colectivo. El objetivo de estas ayudas es conseguir la plena movilidad en el entorno urbano de las personas que o bien no tienen vehículo propio adaptado o por circunstancias varias, no pueden utilizarlo en un momento concreto.

La solicitud de las ayudas está abierta hasta octubre de 2020 y las bases se pueden consultar en la web del ayuntamiento.

ANTSOAINGO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEA

2020an, laugarren aldiz, Antsoaingo Udalak aurrekontu parte-hartzailea abian jarri du. Aurten, iaz bezala, 60.000 euro bideratuko dira herritarrek proposatzen eta aukeratzen dituzuen proiektuetara.

PROPOSATU

Antsoainen erroldaturiko 16 urtetik gorako guztiek egin ditzakezue proposamenak (baita 2020an betetzen badituzue ere) eta Elkarteen Udal Erregistroan izena emandako herritar entitate guztiek ere bai.

Bi proposamen mota egin daitezke: obretarako (berriak edo mantentze lanak) edo inbertitzeko eta gauzak erosteko proposamenak.

Antsoaingo udal bulegoetan nahiz udal webgunean eskuratu ditzakezue proposamenak egiteko sortu den galdetegia.

Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 17an hasi eta martxoaren 16an itxiko da; 08:30etik 14:00etara, aurrez aurre Herritarrei Arreta Egiteko Zerbitzuan edota, noiznahi eta nonahi, Udalaren erregistro elektronikoaren bidez.

AZTERTU

Proposamenak jasotakoan, Partaidetza Batzordeak haietako bakoitza aztertuko du teknikoki bideragarria den edo ez ikusteko. Azterlan hori egin ondoren, aukeratutako proposamenak jendaurrean aurkeztuko dira herritarrek aztertu ahal izateko.

AUKERATU

Aztertu ostean, gogokoen dituzuen proposamenak bozkatu ahal izanen dituzue dituzue. Bozketaren emaitza guztiz loteslea izanen da Udalarentzat, eta aukeratutako proposamena edo proposamenak 2021ean hasiko dira gauzatzen.

INFORMAZIO GEHIAGO

Deialdiaren oinarriak eta agiri guztiak Udal bulegoetan eta webgunean dituzue eskura (www.ansoain.es). Edozein zalantza argitzeko, deitu **948 13 34 10** zenbakira edo idatzi **participacion@ansoain.es** helbidera.

Anima zaitezte eta parte hartu!

PRESUPUESTO PARTICIPATIVO DE ANSOÁIN

Este 2020 el Ayuntamiento de Ansoáin ha puesto en marcha la cuarta edición del presupuesto participativo. Este año, como el anterior, se destinará una partida presupuestaria de 60.000 euros para los proyectos propuestos y elegidos por la ciudadanía de Ansoáin.

PROPÓN

Todas las personas empadronadas en Ansoáin, mayores de 16 años (incluidas las que los cumplen en el 2020), y las asociaciones o entidades ciudadanas inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones pueden hacer sus propuestas.

Puedes realizar dos tipos de propuestas, de obras (nuevas o de mantenimiento) o de adquisición permanente o de inversión.

Para presentar tus propuestas tienes que cumplimentar el formulario específico que tienes a tu disposición tanto en las oficinas como en la web del Ayuntamiento de Ansoáin.

El plazo de presentación comenzará el día 17 de febrero y finalizará el 16 de marzo. De 8:30 a 14:00 horas presencialmente en el Servicio de Atención Ciudadana o a través del registro electrónico del Ayuntamiento cuando quieras y desde donde quieras.

VALORA

Una vez recibidas las propuestas, la Comisión de Participación realizará un estudio de viabilidad técnica de cada una de ellas. Realizado este estudio, las propuestas seleccionadas se presentarán públicamente, para su valoración por parte de la ciudadanía.

ELIGE

Posteriormente podrás votar a las propuestas de tu elección. El resultado de esta votación será totalmente vinculante para el Ayuntamiento que deberá iniciar el proyecto o proyectos seleccionados durante el 2021.

MÁS INFORMACIÓN

Las bases y toda la documentación relativa a la convocatoria están disponibles en las oficinas y en la web del Ayuntamiento www.ansoain.es. Para cualquier aclaración puedes llamar al **948 13 34 10** o escribir a **participacion@ansoain.es**.

Anímate y participa!

HARROBI GAZTELEKUA

Kaixo, Antsoain!

Eguberrietako oporrak pasata, pilak kargatu ditugu eta urte berriari gogoz heltzeko prest gaude! Oraindik ere, Olentzero eguna buruan dugu, ikaragarri polita izan baitzen! Berriz ere, Gazte Handiko neska mutilak zoriondu nahi ditugu, Harrobin egindako lanarengatik. Harrobiko karroza egin zuten eta oso polita geratu zen! Gainera, Gazte Txiki eta Gazte Handiko gazteak elkarlanean aritu ziren, eta hori Antsoaingo gazteria herriarengatik lan egiteko gogoekin dagoen seinale da, beraz, horrela jarraituko dugu!

Harrobin ikusiko dugu elkar!

CASA DE LA JUVENTUD HARROBI

¡Hola Ansoáin!

Aquí estamos de nuevo, una vez pasadas las vacaciones de Navidad, ¡con las pilas cargadas para dar comienzo al nuevo año! Todavía nos acordamos del día de Olentzero, ¡fue un día precioso! Por este motivo queremos volver a felicitar a las personas de Gazte Handi por todo el trabajo que hicieron en Harrobi, ya que hicieron la carroza y quedó espectacular. Además, ver en conjunto a los grupos de Gazte Handi y Gazte Txiki fue muy bonito, ya que trabajaron en común. Eso es señal de que la juventud de Ansoáin tiene ganas de trabajar por el pueblo, así que, ¡seguiremos trabajando con ganas!

¡Nos vemos por Harrobi!

HARROBI
Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoáin

ORDUTEGI BERRIAK GIMNASIOAN ETA IGERILEKU ESTALIAN

Joan den urtarriletik hona, ordutegi berria dago Idaki Udal Gimnasioan, bonudunei zerbitzu hobea emateko. Horrela, astelehenetik ostiralera, orain, goizeko 7:30ean irekitzen da eta gaueko 22:00etan itxi. Beraz, orain, ordu eta erdi lehenago irekitzen da (orain arte, 09:00etan) eta ordu erdi geroago itxi (orain arte, berriz, 21:30ean).

2019an egindako aldaketetako bat izan da hori, eta, horrez gain, iaz, hainbat ekipamendu hobetu ziren: pauso aldakorreko makina berri bat jarri da, HIT bizikleta bat ere entrenamendu oso trinkoetarako, eta entrenamendurako material osagarria ere bai.

Era berean, joan den urtean, jende guztiak erabiltzeko den makina berri bat jarri zen. Ipurmasaileko eta bizkarreko zein gorputz-enborreko giharrak lantzeko balio du.

Horrez gain, spinning gelan, argi berriak paratu ziren eta, horri esker, jarduera hori orain are erakargarriagoa da; era berean, gimnasioan wifia jarri zen, bai eta aplikazio berri bat ere, entrenamenduaren preskripzio eta jarraipenerako.

Ekainaz geroztik, ahalik eta loturarik handiena eman nahi izan zaie zerbitzu guztiei. Hori dela eta, gimnasioan eta Kirol Bonuko jardueretan aritzeko aukera eman zaie erabiltzaileei uda partean, eta era berean, spinning birtualeko saioetan aritzeko parada gimnasioko bonua duten pertsonei.

NUEVOS HORARIOS DE GIMNASIO Y DE PISCINA CUBIERTA

Desde el pasado 2 de enero está en marcha el nuevo horario de apertura y cierre del Gimnasio Municipal Idaki. Con el fin de ofrecer un mejor servicio a las personas abonadas al mismo, la apertura se está realizando a las 7,30 de la mañana y el cierre a las 22 horas, de lunes a viernes. De esta manera, el horario de apertura se adelanta en hora y media (Antes abría a las 9) y el de cierre se retrasa media hora (antes se producía a las 21,30 horas).

Esta modificación se una a las actuaciones emprendidas a lo largo de 2019 en la instalación, un año en que se han mejorado diversos equipamientos, tal como la incorporación de una nueva máquina de paso variable, una bicicleta HIT para entrenamientos de alta intensidad y diverso material complementario para el entrenamiento.

También se realizó la instalación de una nueva máquina específica para trabajo de glúteo dirigido a la población general y al trabajo de salud hacia la tonificación de espalda y core.

De la misma manera, se estrenó la nueva iluminación de la sala de Spining, que hace que la actividad sea si cabe más atractiva, se implantó la zona wifi en el gimnasio y una nueva aplicación para prescripción y seguimiento del entrenamiento.

Ya desde el mes de Junio se ha intentado dar la máxima conexión a todos los servicios y por ello se permitió compaginar el acceso a sala gimnasio y actividades de Abono deporte a las personas usuarias durante periodo estival, así como permitir y facilitar el acceso a las sesiones de spinning virtual a las personas abonadas a gimnasio.

Bestalde, urte berriarekin batera abian jarri diren bonu eta tarifa mota berrien bitartez, erantzun egokiagoa eman nahi zaie instalazioa erabiltzen dutenen beharrei. Orain, pertsona bakoitzak errazagoa dauka ariketa egitea bere gustu eta ezaugarriekin bat.

2020 honetan, gainera, indarra lantzeko makina berriak jarri dira, gimnasioko materialik zaharrena berritu baita.

Bestalde, igerileku estalia ixteko ordua aldatu da eguerdian, eta irekitzeko ordua, berriz, arratsaldean. Orain, eguerdiko 13:30ean itxi (lehenago, 13:00etan) eta arratsaldeko 16:30ean irekitzen da (lehenago, 16:00etan).

Aldaketa horiek guztiak egin dira, gure udal instalazioak erabiltzen dituen jendearen onerako izanen direlakoan.

Asimismo, las nuevas modalidades de abonos y tarifas estrenadas con el nuevo año, intentan dar una respuesta más adecuada a las necesidades de las personas usuarias a la instalación, facilitando que cualquier persona pueda hacer el ejercicio en la forma más adaptada y conveniente a sus gustos y características.

Este 2020, además, se inicia con instalación de nueva maquinaria de trabajo de fuerza, renovando así parte del material más antiguo del gimnasio.

Por otro lado, se ha modificado el horario de cierre de la piscina cubierta al mediodía y el de su apertura por la tarde. Al mediodía el cierre se produce a las 13,30 (antes era a las 13 horas) y la apertura por la tarde ha cambiado a las 16,30 (antes era a las 16 horas). Esperamos que las modificaciones planteadas redunden en beneficio de quienes utilizan nuestras instalaciones municipales.

ANTSOAINGO BIZTANLEEN ZIFRA OFIZIALA

INEk (Estatistikako Institutu Nazionala) emandako azkeneko zifra ofizialaren arabera, Antsoainen **10.833 lagun** bizi dira.

CIFRA OFICIAL DE HABITANTES PARA ANSOÁIN

La última cifra oficial facilitada desde el INE (Instituto Nacional de Estadística) certifica que el número de habitantes de Ansoáin asciende a **10.833 habitantes.**

TIENDA DE TELEFONÍA MÓVIL

IruCell

Accesorios & Reparaciones

Acércate y descubre todas nuestras promociones en telefonía

Tfno. 948 130 034

Avda. Villava, 17 bajo (junto a Eroski) ANSOAIN

Reparación de teléfonos móviles y tablet

Accesorios para móvil (altavoces, cargadores de red, baterías, carcasas...) de las primeras marcas del mercado

Teléfonos adaptados a tus necesidades. Recargas nacionales e internacionales

Distribuidor oficial de la compañía Lowi y Digimovil para particulares y empresas. Tarifas económicas

Reparación y mantenimiento de PC para empresas y particulares. Todos los servicios necesarios para mantener en perfectas condiciones tu ordenador

EUSKARA ZERBITZUA

HEZKUNTZA, D EREDUAN. "ASPALDITIK GATOZ, URRUTIRA GOAZ"

2017an jaiotakoak eskolaratzeko matrikulazio epea otsailaren 3tik 7ra izanen da, eta D ereduak euskarazko hezkuntza eleanitza eskaintzen dizu, esperientzia pedagogikoa eta gure seme-alabak etorkizunerako prestatzen dituen Hezkuntza.

Otsailaren 3tik 7ra, hautatu #euskaraz-ko irakaskuntza eta bidaiarik onena oparituko diezu. D eredua da beren desioak betetzeko tresna! #UrrutiraGoaz

Informazioa edo laguntza behar izanez gero, zure Udal Euskara Zerbitzura jo dezakezu, eta gogoratu www.era.eus atariak laguntza ematen dituzula hainbat gairi buruzko informazioa artikulu eta bideo bidez landuz:

- Esperientzia pedagogikoa
- Murgiltze linguistikoa eta hezkuntza eleanitza
- Etxerako lanak
- 10 aholku euskaraz hazteko
- Ez euskara, ez gaztelania; beste hizkuntza bat erabiltzen duten familiak
- Eskolaz kanpoko jarduerak, aisia eta askoz ere gehiago

SERVICIO DE EUSKERA

MODELO D PARA SU EDUCACIÓN. "NO IMPORTA DE DÓNDE VIENES SINO HACIA DÓNDE VAMOS"

El periodo de matriculación de niños y niñas nacidas en 2017 será del 3 al 7 de febrero y el modelo D te ofrece un modelo plurilingüe en euskera, experiencia pedagógica y una Educación que prepara a nuestros hijos e hijas para su futuro.

Del 3 al 7 de febrero, apuesta por la enseñanza en #euskera y regálales el viaje de su vida. El Modelo D es la herramienta para que se puedan cumplir sus deseos. #UrrutiraGoaz

Si necesitas información o ayuda puedes acudir a tu Servicio de Euskera Municipal, y recuerda que el portal www.era.eus te ayuda con información sobre muchos temas relacionados a través de artículos y videos:

- Experiencia pedagógica
- Inmersión lingüística y educación plurilingüe
- Tareas escolares
- 10 ideas para educar en euskera
- Familias con un idioma diferente al euskera o el castellano
- Actividad extraescolar, ocio y mucho más

Argitaratzailea: Antsoaingo Udala · Edita: Ayuntamiento de Ansoáin · DL/LG: NA 942-2016

EZKABA IKASTETXE PUBLIKOA

Aurten ere, inauteriak ospatuko ditugu Ezkaba eskolan. Otsailaren 21ean ikasleak eta irakasleak kalejiran aterako gara Antsoaingo kaleetatik, gure mozorro koloretsuekin. Aurten aukeratutako gaia "euskal jaiak" da, beraz, Euskal Herrian ospatzen diren jaiekin zerikusia duten jantziak erabiliko ditugu. Kalejiraren ondoren, frontoian erakustaldi bat eginen dute ikasleek, eta inauteriak gurekin ospatzera animatu nahi zaituztegu. Egun zoragarria izanen da.

HERRIAN HAZI ETA HEZI

COLEGIO PÚBLICO EZKABA

Otro año más llegan los carnavales, y como todos los años, el 21 de febrero, el alumnado y el profesorado saldremos en kalejira por las calles de Ansoáin con nuestros coloridos disfraces. El tema elegido para esta ocasión son las diferentes fiestas de Euskal Herria. Nuestros disfraces representarán las diferentes fiestas que a lo largo del año se celebran. Después de la kalejira nuestro alumnado nos ofrecerá un espectáculo de música y danza en el frontón. Queremos animaros a celebrar este bonito día con nosotras y nosotros. Va a ser un día muy animado y divertido.

KOLEKTIBOAK COLECTIVOS

JOSEFINA AGUERRIREN OMENEZ

Zer esan Josefinari buruz! Bere ontasun handia. Bere eskuzabaltasuna eta justizia sozialaren egarria. Hor zegoen ahulen ondoan, bisitatzen zituen adinekoen ondoan, konpainia eta laguntza emanez. Antsoaingo Caritasen historiako zati garrantzitsu bat hil da gaur. Haren ondare izugarria. Haren eztitasuna eta maitasuna, eta amaierarik gabe zabaltzen zen bihotz handia. Faltan botako zaitugu.

EN MEMORIA DE JOSEFINA AGUERRI

¡Qué decir de Josefina! Su enorme bondad. Su gran generosidad y su sed de justicia social. Ahí estaba junto a los débiles, junto a los ancianos y ancianas a los que visitaba llevándoles compañía y apoyo. Siempre atenta a las necesidades sociales. Hoy muere un trozo importante de la historia de Cáritas de Ansoáin. Su legado inmenso. Su dulzura y cariño y un enorme corazón que se expandía sin fin. Te echaremos de menos.

A las aladas almas de las rosas del almendro de nata te requiero, que tenemos que hablar de muchas cosas compañera del alma, compañera

Talleres para niñ@s en periodos vacacionales hasta 8 años (Posibilidad de días sueltos durante el curso)
Inglés a partir de 1 año con Kids&us en Lorea
información y matrículas de 16:00 a 17:00 h.
tfno. 948 078 642
paseo de los donantes de sangre nº 9, bajo · 31015 pamplona-iruña
e-mail: guarderialorea@hotmail.es
www.guarderialorea.es
Importantes descuentos en tarifa y matrícula para hermanos y familia numerosa
guardería haurtzaindegia lorea

ETA OLENTZERO ETA MARI DOMINGI HELDU ZIREN...

Antsoaingo Kultur Koordinakundetik eskerrak eman nahi dizkiegu Olentzero antolatzeko deia jaso zutenei, aurrera atera ahal izateko egin duten lanagatik.

Dakizuenez, gure herrian Olentzeroren eta Mari Domingiren bisitarik ez izateko zorian egon ginen, baina lan gogorra egin duten pertsonen parte-hartzeari esker, Antsoainen inoiz izan den Olentzerorik herrikoiena eta **parte-hartzaileena** antolatu ahal izan genuen!! Adin askotako pertsonek, esparru ezberdinetakoek, guztiok batera gure herri maitearen kulturaren alde lan egin dugu. Harrobikoei, gure etorkizuna diren eta antolakuntzan buru-belarri murgildu diren gazteei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Esker on berezia bidali nahi diegu, halaber, herri honetako elkarteei, parte hartzeagatik; haien guztien laguntzarik gabe ez baitzen posible izango. Eskerrik asko Ezkaba Ikastetxeari, gure beharrak zabaltzen laguntzeagatik. Mila esker zuen ahaleginagatik, zuen lanarengatik, zuen borondate onarengatik, zuen bihotz handiarengatik eta Antsoain bizirik mantentzeko duzuen gogoarengatik!

Eta egun horretan kaleak alaitasunez, kolorez eta magiaz betetzen dituzten pertsonei ere eskerrak eman nahi dizkiegu!!

Y LLEGARON OLENTZERO Y MARI DOMINGI...

Desde la Coordinadora Cultural de Ansoáin queremos agradecer a las personas que habiendo recibido el llamamiento para organizar el Olentzero se acercaron para poder sacarlo adelante.

Como sabéis estuvimos a puntito de no poder contar con la presencia de Olentzero y Mari Domingi en nuestro pueblo, pero GRACIAS a la participación de personas que altruistamente han trabajado duro, ¡¡pudimos organizar el Olentzero **más popular y participativo** que ha tenido Antsoain jamás!! Personas de edades diferentes, de ámbitos diferentes, que todas juntas hemos trabajado por la cultura de nuestro querido pueblo.

También queremos agradecer a Harrobi, a los y las jóvenes que se han volcado en la organización, que son nuestro futuro. Enviamos un agradecimiento especial también a las asociaciones de este pueblo por su participación. Sin todos y todas ellas no habría sido posible. Eskerrik asko al Colegio Público Ezkaba por colaborar en la difusión de nuestras necesidades. ¡Mila-mila esker por vuestro esfuerzo, vuestro trabajo, vuestra buena voluntad, vuestro gran corazón y vuestras ganas por mantener Antsoain vivo!

¡¡Nuestro enorme agradecimiento también a las personas que inundan las calles ese día de calor, alegría y magia!!

ANTSOAINETIK LETTERKENNY-RA (IRLANDA), SOKATIRAKO MUNDIALERA

ANTSOAIN HERRI KIROL TALDEko SOKATIRA taldea mundu mailan tiratzeko prest dago. Kirol jokoetan, lurraldeko txapelketetan, erakustaldietan... aritu ondoren, gure hurrengo helburua otsailaren 19an Irlandara bidaiatzea izanen da. Bertan, sokatirako gure teknika eta indarra neurtuko ditugu Txina Taipei, Taiwan, Irlanda, Eskozia, Japon, Ukrainia edo Hegoafrika bezalako taldeen aurka.

Mundiala otsailaren 20tik 23ra izanen da, Letterkenny herrian, Irlandan. Gure taldeak, ANTSOAIN HKT-k helduen kategoria hauetan parte hartuko du: emakumezkoak 500 kg eta 540 kg; gizonezkoak 600 kg eta 640 kg; eta mistoa 580 kg.

Talde bikaina osatzeko aukera eman digute hanketan zein eskuetan entrenamendu teknikoen eta fisikoen ondorioz pilatutako orduek; eskolako patioan, poleari tiraka emandako arratsaldeek; Antsoaingo berdeguneetan korrika ibilitako kilometroek; erakustaldi eta txapelketetako sokek edota “kun-ker” hotsek... Taldean, inplikazioan eta ahaleginaren indarrean sinetsi dugu.

Babesle eta laguntzaileak bilatu ditu taldeak, eta ekintzak zein erakustaldiak lotu

DE ANSOÁIN A LETTERKENNY (IRLANDA) AL MUNDIAL DE SOKATIRA

El equipo de SOKATIRA de ANTSOAIN HERRI KIROL TALDEA está preparado para enfrentarse a nivel mundial. Después de juegos deportivos, competiciones locales, exhibiciones... nuestro próximo reto será viajar a Irlanda el 19 de febrero donde nuestra técnica y fuerza en sokatira competirá con equipos como China Taipei, Taiwan, Irlanda, Escocia, Japón, Ucrania o Sudáfrica.

El mundial se celebrará del 20 al 23 de febrero, en la localidad de Letterkenny, Irlanda. Nuestro equipo, ANTSOAIN HKT competirá en diferentes modalidades de la categoría absoluta: 500 kg y 540 kg femenino; 600 kg y 640 kg masculino; y 580 kg mixto.

Nuestras piernas y manos acumulan horas de entrenamiento técnico y físico; tardes tirando en la polea del patio del colegio, corriendo por los jardines de Ansoáin; exhibiciones y competiciones donde la cuerda y el sonido del “kun, ker” han hecho que formemos un gran equipo que ha luchado, y que ha creído, que si te implicas se puede conseguir.

Este equipo que ha buscado patrocinios y subvenciones, que ha creado eventos y conseguido exhibiciones para poder costear gastos de equipación, material y viajes...

ditu, ekipazioaren, materialaren eta bidaien gastuei aurre egin ahal izateko eta...

LORTU DUGU! IRLANDAKO 2020ko SOKATIRAKO MUNDIALERA GOAZ!

Gure maletak ilusioz beteta joanen dira, ekipazioarekin eta zapatila errekautxutatuekin batera. ANTSOAIN Herri Kirol Taldearen izena eramanen dugu Irlandara, gure ahaleginarekin eta esperientzia hau bizitzeko egindako ibilbidearekin batera.

Hori guztia lortzeko baina, ezinbestekoa izan da babesleen laguntza (Q+D, Goshua, Txinparta taberna, Zaldiko taberna, Ezkaba aseguruak, Los Gemelos taberna), Antsoaingo Udalaren eta gure herri-kirol eskolako familien babesa; eta, batez ere, talde osoaren konpromisoa eta esfortzua.

4 urte pasa dira jada proiektu eta abentura honekin hasi ginenetik, eta gure txikiek gure kirolean eta kulturan sinestea espero dugu, kirolari harrobi ederra lortu ahal izateko eta ANTSOAIN izena kiroldegi internazionaletan entzun ahal izateko.

¡LO HA CONSEGUIDO! ¡NOS VAMOS AL MUNDIAL DE SOKATIRA DE IRLANDA 2020!

Nuestro equipaje irá lleno de ilusión e incluirá la equipación y las zapatillas recauchudadas para la ocasión. Además, llevaremos a Irlanda el nombre de ANTSOAIN Herri Kirol Taldea, junto con el esfuerzo y el recuerdo de todo el camino recorrido para conseguir vivir esta experiencia.

Todo esto no hubiera sido posible sin el apoyo de patrocinadores (Q+D, Goshua, Bar Txinparta, Bar Zaldiko, Seguros Ezkaba, Bar Los Gemelos), el respaldo del Ayuntamiento de Ansoáin y el de las familias de nuestra escuela de herri kirolak, y sobre todo el esfuerzo y compromiso del equipo.

Han sido 4 años desde que comenzamos de cero con nuestro proyecto y aventura. Esperamos que nuestros y nuestras txikis crean en nuestro deporte y cultura para conseguir una gran cantera de deportistas y que el nombre de ANTSOAIN resuene en los pabellones internacionales.

CES ANSOÁIN, IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA

CES Antsoain elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Antsoaingo Udalari, gure elkartean eta, batez ere, gure proiektuan jarritako konfiantzagatik. Antsoainen ditugun koloniak antzutzea eta zaintzea da katu populazioaren kontrol egokia bermatzeko modurik eraginkorrena.

Iaz sinatutako hitzarmenari esker, 29 katu antzutu ditugu 26 kume kaletik ateratzearekin batera, eta garrantzitsuena: neurri batean, gure bizilagun diren katuen bizi kalitatea hobetu dugu. Urte honetan zehar ikusi eta nabaritu ahal izan dugu Antsoaingo auzokide gehienak animalien errespetuari emanda eta eduki beharreko errespetuarekin kontzientziatuta dagoen jendea dela, baina salatu beharreko jarrerak eta erasoak ere ikusi ditugu. Gauden garaietan ezin da onartu katuei pozoia ematea edo tiro egitea, zuri ez gustatze hutsagatik; eta hori da, hain zuzen, leku batzuetan aurkitu duguna. "Pertsona" horiei gogorarazten diegu **ERABAT DEBEKATUTA DAGOELA ANIMALIEI TRATU TXARRA EMATEA**, 19/2019 Foru Legearen 7. art. Horrekin batera esan nahi dugu ikusten ditugun edo jakinarazten dizkiguten animalien aurkako eraso mota guztiak salatuko ditugula. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu laguntzen eta animatzen gaituzten pertsona guztiei, zorionez gero eta gehiago baitira.

Mila esker.

CES ANSOÁIN, ASOCIACIÓN SIN ÁNIMO DE LUCRO

Desde la asociación CES Ansoáin queremos dar las gracias al Ayuntamiento de Ansoáin por la confianza puesta en nuestra asociación y sobre todo en nuestro proyecto. La esterilización y cuidado de las distintas colonias que tenemos en Ansoáin es el método más eficaz de garantizar un buen control de la población felina.
Gracias al convenio firmado el año pasado, hemos esterilizado 29 gatos, sacado de la calle 26 cachorros y lo más importante: hemos mejorado, en alguna medida, la calidad de vida de nuestros vecinos felinos. Durante este año hemos visto y notado que la gran mayoría de vecinos de Ansoáin es gente que está muy volcada y concienciada con el respeto animal, pero también hemos visto actitudes y agresiones que deben ser denunciadas. En los tiempos que estamos no se puede consentir que se envenenen, o se dispare a gatos por el mero hecho de que no te gusten, y esto es lo que hemos encontrado en algunos sitios. Recordamos a estas "personas" **QUE ESTA TOTALMENTE PROHIBIDO EL MALTRATO ANIMAL,** art. 7 de la Ley Foral 19/2019, y que denunciaremos cualquier tipo de agresión hacia animales que veamos o de la que tengamos conocimiento. Queremos dar las gracias a todas las personas que nos apoyan y animan, que por suerte son cada vez más.
Mila esker

CÁRITASEN ETA ADEMNAREN ALDEKO KONTZERTUA

Abenduaren 20an antolatutako kontzertuaren sarreren salmentarekin lortutako diru guztia eman dio Ezkaba jubilatuen elkarteak Antsoaingo Cáritasi eta Esklerosi Anizkoitzaren elkarteari.

CONCIERTO BENÉFICO A FAVOR DE CÁRITAS Y ADEMNA

La Asociación de Jubilados y Jubiladas Ezkaba ha donado a Cáritas Ansoáin y a la Asociación de Esclerósis Múltiple (ADEMNA) la recaudación íntegra por la venta de entradas del concierto benéfico organizado el pasado 20 de diciembre.

KULTUR JARDUERAK otsaila

febrero ACTIVIDADES CULTURALES

GAZTE LEHIAKETA - CONCURSO JUVENIL

LARUNBATA 1 SÁBADO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
19:00 h. (90 min)

Jende guztiarentzat - Todos los públicos

"ZU BAI ARTISTA!" "TÚ SÍ QUE MOLAS!"

Ez ahaztu data hau: **otsailaren 1a**, larunbata! Zergatik? Antsoaingo Antzokiko eszenatokian hainbat pertsonaren talentua ikusteko aukera izango duzulako. Berriro **Zu Bai Artista** antolatuko dugu. Aurreko edizioetan ikaragarrizko harrera izan zuen. Hortaz, aurten berdin izatea espero dugu. Etorri zaitezte!!!

¡Quédate con esta fecha: sábado **1 de febrero**! ¿Qué pasa? Que tienes la oportunidad de asistir a la demostración del talento de diferentes personas sobre el escenario del Teatro de Ansoáin. Organizamos de nuevo el **TSQM**. Las ediciones anteriores han tenido muy buena acogida. Así que esperamos que este año sea igual. Anímate a venir!!!!

PRECIO / PREZIOA 2,00 €

ANTZERKIA - TEATRO

OSTIRALA 7 VIERNES

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
21:00 h. (90 min)

YLLANA Y PRIMITAL BROTHERS

Gazte eta helduentzat - Juvenil - Adulto

THE PRIMITALS

Yllanak eta Primital Brosek a capela komedia musikal dibertigarri batekin bat egingo dute. Lau aborigenek agertokia eskatzen dute, publikoa konkistatzeko prest, barre-algaraka edo matxetakadaka, mila generotako musika gaineratuz, denboraren mugetan zehar bidaiatuz xurgatutakoak. Disfuntzional samarra den tribu baten istorio bitxi eta surrealista, borroka sutsuak, handitasun ametsak, buruko desorekak eta milaka urteko farmakopea dituena. Xamanismoa lau ahotsetara. Tragikomedia a capela. Antzinako abangoardismoa. Hau guztia eta askoz gehiago The PRIMITALS -en.

Yllana y Primital Bros se unen para sorprendernos con una divertidísima comedia musical a capela. Cuatro aborígenes reclaman el escenario, dispuestos a conquistar al público, a carcajadas o a machetazos, rebosando música de mil géneros que han ido absorbiendo en sus viajes por los confines del espacio tiempo. La extraña y surrealista historia de una tribu ligeramente disfuncional, con luchas intestinas, sueños de grandeza, desequilibrios mentales y farmacopea milenaria. Chamanismo a cuatro voces. Tragicomedia a capela. Vanguardismo ancestral. Todo esto y mucho más en THE PRIMITALS.

ALDEZ AURRETIK / VENTA ANTICIPADA: 13,00 €
LEHIATILAN / EN TAQUILLA: 16,00 €

HILEAN BEHINGO IRTEERA - SALIDA MENSUAL

LARUNBATA 8 SÁBADO

Lapurbide plaza - Plaza Lapurbide
12:00 h.

Familientzat - Familiar

ANTSOAINEN KANTUZ

Antsoainen Kantuz jende bila dabil. Hori dela eta, taldea zabalik dago hartan parte hartu nahi duen jende guztiarentzat. Entseguak osteguetan egiten dira, 19:30ean, Antsoaingo Gizarte Etxean.

Antsoainen Kantuz desea ampliar el grupo. Por eso motivo invita a toda persona que quiera participar con el grupo. Los ensayos son los jueves a las 19:30 en el Centro Cívico de Ansoáin.

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

RED DE TEATROS DE NAVARRA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

IGANDEA 9 DOMINGO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (60 min)

ILUNA TEATRO

3 urtetik aurrera - A partir de 3 años

ANA MONTAÑA Y UN CUENTO MEDIEVAL

Ana Erdi Aroko kanpaldi batera joaten da, eta, neskato bat denez, printzesa izateko konbentzitzen saiatzen dira. Baina Anak gaiztoak garaitu nahi ditu, dragoien aurka borrokatu, eta zaldun izan! Berdintasunaz, ahalduntzeaz eta askatasunaz hitz egiten duen ipuina da, denok izan nahi duguna izan gaitezken munduaz.

Ana acude a un campamento medieval y, como es una niña, le tratan de convencer para ser princesa. Ella quiere vencer a los malos, luchar contra dragones y, ¡ser caballero! Es un cuento que habla de igualdad, empoderamiento y libertad donde todos y todas podemos ser aquello que queramos ser.

ALDEZ AURRETIK / VENTA ANTICIPADA: 5,00 €
LEHIATILAN / EN TAQUILLA: 6,00 €

IPUIN-KONTALARIA EUSKARAZ - CUENTA CUENTOS EN EUSKERA

ASTEAZKENA 19 MIÉRCOLES

Liburutegia
Biblioteca

Haurrentzat baizik ez - Exclusivamente para niños/as

NAHI DUDANA IZATERIK BANU LUR USABIAGA

DOAKO SARRERA
ENTRADA LIBRE

17.30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat
18.15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat

17:30 De 3 a 5 años
18:15 De 6 a 12 años

OSTIRALA 21 VIERNES

Irteera: Ezkaba Ikastetxe Publikoa - Salida: Colegio Público Ezkaba
10:30 h.

ESKOLAKO INAUTERI KALEJIRA - DESFILE CARNAVAL ESCOLAR

Otsailaren 20tik, osteguna, 22ra, larunbata

Del jueves 20 al sábado 22 de Febrero

IHAUTERIAK - CARNAVALES

COORDINADORA CULTURAL

OSTEGUNA 20 JUEVES
"LARDERO OSTEGUNA" - "JUEVES DE LARDERO"

17:30 "Antsoaingo trikipandero taldearekin eta Eguzki Eder Dantza taldearekin ostiraleko merendurako puskabiltza.
"Antsoaingo trikipandero taldea y Eguzki Eder Dantza taldea" pasarán por las casas de Antsoain para recoger alimentos para la merendola del viernes.

OSTIRALA 21 VIERNES
"INHAUTERIA DATOR" - "LLEGA EL CARNAVAL"

18:00-20:00 Ihauteriari hasiera emateko pregoia Txokogorrin. Ostean, Eguzki Eder Dantza taldea, aurpegi margoketa, Ezkaba ikastetxeko ikasleek egindako marrazkien aurkezpena eta auzokideen emarien esker meredua.
Pregón de inicio del carnaval. En Txokogorri. A continuación actuación de Eguzki Eder Dantza taldea, pintacaras, presentación de los dibujos realizados por alumnado de "Ezkaba" y merienda gracias a las donaciones de las vecinas y vecinos.

LARUNBATA 22 SÁBADO
"INHAUTERIAK"- "SÁBADO DE CARNAVAL"

10:00 Hamarretakoa Kokotxaberrin / Almuerzo en "Kokotxaberri".
11:30 Karroza desfilea Harrobitik / Desfile de carrozas desde "Harrobi".
14:30 Bazkari herrikoia frontoian (txartelak Txarkon, Txinpartan eta Zaldikon) / Comida popular en el frontón (bonos en el Charco, Txinparta y Zaldiko).
16:00 Luciano show frontoian / Luciano show en el frontón.
17:00 Desfilea Antsoaingo kaleetan zehar / Desfile por las calles de Ansoáin.
18:30-21:30 Luciano y txikiendako merendua / Luciano y merienda para los y las txikis.
23:00 Gaupasa Txokogorrin / Gaupasa en Txokogorri.

HAURRENTZAKO ANTZERKIA EUSKARAZ - TEATRO INFANTIL EN EUSKERA

IGANDEA 23 DOMINGO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (55 min)

BOROBIL TEATROA

6 urtetik aurrera - A partir de 6 años

HANSEL ETA GRETEL

Duela denbora bat norbaitek munduko errezeta liburu guztiak lapurtu zituen, eta jada inork ezin du sukaldatu. Jendeak hanburgesak baino ez ditu jaten ordutik zabaldu diren milaka Amonioburgerretan. Juan Mari sukaldari ezaguna zen, eta bere jatetxea beti leporaino beteta izaten zuen. Baina bere errezeta liburua desagertu zenetik, ospea eta bezeroak galdu egin ditu. Eta bankuak jatetxea isteko mehatxua ere egin dio. Juan Mariren seme alabek, Hansel eta Gretelek, ez dute hau onartuko eta bankuarekin hitz egitera joateko erabakia hartuko dute. Arazo bat dago, ordea, bankura iristeko basoa zeharkatu behar baita. Eta kondairak dioenez, bertan, karameluzko sagarrak ematen dituen zuhaitz bat dago. Sagar horietako bat probatzen duena ez da inoiz etxera bueltatuko...

Hace un tiempo que alguien robó todos los libros de recetas del mundo y ya nadie puede cocinar. La gente solo come hamburguesas en las miles de Amonioburguers que se han abierto desde entonces.
Juan Mari era un famoso cocinero, cuyo restaurante siempre estaba lleno. Pero desde que desapareció su libro de recetas, ha perdido fama y clientela y el banco le ha amenazado con cerrar el restaurante. Los hijos menores de Juan Mari, Hansel y Gretel, no aceptarán esto y tomarán la decisión de ir a hablar con el banco. Sin embargo, hay un problema, porque para llegar al banco hay que cruzar el bosque. Y la leyenda dice que en él hay un árbol que da manzanas de caramelo. El que pruebe una de esas manzanas nunca volverá a casa...

PRECIO / PREZIOA 4,00 €

HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Ohiko Osoko Bilkurak hilabete bakoitzeko azken asteazkenean egiten dira, 18:00etan, Udaleko osoko bilkuren aretoan.

INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA

Las sesiones del Pleno Ordinario se celebran los últimos miércoles de mes, a las 18:00 horas, en el salón de plenos del Ayuntamiento.

JARDUNALDIAK: KOMIKI ETA ILUSTRAZIO SOZIALA

JORNADAS DE COMIC E ILUSTRACION SOCIAL

12 MIÉRCOLES/ASTEAZKENA - 19:00 TXOKOGORRI
Charla/Hitzaldia: "De Rerum Natura. Komikigintza eta euskara" Zaldi Eroa

13 JUEVES/OSTEGUNA - 19:00 TXOKOGORRI
Presentación/Aurkezpena: "Rompepistas" Rosa Codina, "Carne de cañón" Aroha Travé

14 VIERNES/OSTIRALA - 19:00 EL CHARCO
Encuentro/Topaketa: "El cómic en una pancarta". Cesar Oroz, Txema Esteban

15 SÁBADO/LARUNBATA - 20:00 TEATRO ANSOÁIN/ANTSOAINGO ANTZOKIA
Cine de animación/Animazio zinema: "Black is Beltza". Fermín Muguruza

19 MIÉRCOLES/ASTEAZKENA - 19:00 BIBLIOTECA/LIBURUTEGIA
Charla/Hitzaldia: "Bestias y Cenicientas. Una mirada feminista en la narrativa gráfica". Miriam Cameros

20 JUEVES/OSTEGUNA - 19:00 TXOKOGORRI
Encuentro/Topaketa: "Otras historietas". Carlos Azagra, Encarna Revuelta

EXPOSICIONES: DEL 12 AL 20 - ERAKUSKETAK: 12TIK 20RA
"Bestias y Cenicientas. Una mirada feminista en la narrativa gráfica. Piztiak eta Marierrauskinak. Begirada feminista bat narratiba grafikoan ". Miriam Cameros. BIBLIOTECA/LIBURUTEGIA
"De Rerum Natura" Zaldi Eroa. TXOKOGORRI

SARREREN SALMENTA – VENTA DE ENTRADAS

ANTZOKIKO LEIHATILAN.
Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

012 TELEFONOAN (Nafarroatik kanpo 948 012 012).
Sarrerak antzokiko leihatilan hartuko dira ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

INTERNET www.ansoain.es SARREREN SALMENTA.
Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu, zuzenean aretora sartu zaitezke.

Ez da aldaketarik edo itzultzerik onartzen. Soilik ikuskizuna bertan behera utziz gero.

TAQUILLA DEL TEATRO.
Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo.

TELEFONO 012 (Desde fuera de Navarra 948 012 012).
Las entradas se recogerán en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo del espectáculo.

INTERNET www.ansoain.es VENTA DE ENTRADAS.
Con el justificante de compra por internet puedes acceder directamente a la sala.

No se admiten cambios ni devoluciones, excepto por cancelación de un espectáculo.

idaki

Zure kirol guztia
Todo tu deporte

HOBE LAGUN ARTEAN
MEJOR CON AMIG@S

Otsailaren 17tik 21era IDAKI lagunekin gozatu

Del 17 al 23 de febrero disfruta de IDAKI bien acompañad@

2 SAIO DOAN
SESIONES GRATIS

* Bonua duen pertsona batekin joan behar da.
* En compañía de una persona abonada al servicio.

INFO + iDAKIko harreran | +INFO en mostrador iDAKI

www.idaki.org 948 14 07 82

ANTSOAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN